



## VENDETTA MUSIKA TALDE BERRIAREN BIDETIK

Enrike Rubiños tolosarra sortu berria den Vendetta taldearen bateria da; 'Vendetta' izeneko diskoa kaleratu dute >7

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteartea  
2009-02-17

VII.URTEA 1.631.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Kalte handiak eragin ditu sute batek Sevendenea adingabeen zentroan

**TOLOSA** Atzo eguerdian gertatu zen; goiko solairua eta teilatua erabat kiskali ziren baina ez zen zauriturik izan

**AZKEN EGUNA** Pasa den astean hasi ziren zentroa hustutzen eta atzo eraman behar zituzten azkenak 4



Suhiltzaileak Sevendenean sortutako sua itzaltzen. Eskuinean, etorkin adingabeak zentroari begira. I.T.



I. GARCIA

**JUAN MANUEL ERASUN** D3M-REN ZERRENDAGAIA

«Legebiltzarrean ez da ordezkaturik izango herriaren borondatea»

**HAUTESKUNDEAK** «Injustiziari aurre egiteko» D3Mren bozka erabiltzeko eskatzen du 2

### POSTABIDEZKOBOTOA VOTAPORCORREO

Datorren martxoaren 1ean ezin bazara bozkatuzera joan, gogora ezazu postazko botoa emateko aukera ere baduzula.

Si el 1 de marzo no puedes acudir a las urnas, recuerda que puedes votar por correo.

Hurbidu zaituzte zure Alkartzetxera edo dei eginez: Informate en tu Alkartzetxe o llámanos:

ARABA: 945 23 27 62 BIZKAIA: 94 416 10 33

GIPUZKOA: 943 02 01 30 NAFARROA: 948 22 06 91

EUSKALKARTASUNA.ORG

Gogoratu, otsailaren 19 arte | Recuerda, sólo hasta el 19 de febrero



## E Elkarrizketa

## Hauteskundeak»

Martxoaren 1ean D3Mren bozkatxartelak erabiltzeko eskatzen du, «injustiziarri aurre egin eta duintasunaren alde egiteko».

IMANOL GARCIA

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Demokrazia 3 Milioi (D3M) eta Askatasunaren Baliogabetzea berretsi ondoren egin zaio elkarrizketa Juan Manuel Erasuni (Aia, 1963). Azken 16 urtetan Zizurkilan bizi da eta bertako alkate izan zen Euskal Herriarrok alderdiarekin 1999tik 2003ra. 2003an Zarate-Haitz plataformaren zerrendan eta 2007an EAE-ANV zerrendetan aurkeztu zen udal hauteskundeetan. Bi zerrendak baliogabetu zituzten. Aurtengo EAeko hauteskundeetarako D3Mren zerrendan bigarren postuan dago Gipuzkoatik eta bozeramaile lanetan ari da.

## Espero zenuten Espainiako Auzitegi Konstituzionalak baliogabetzea berrestea?

Bai, zoritxarrez. Francoren diktadura euskal alderdiak legez kanpo uzten ziren bezala, orain PSOE Gobernuan egonda, berdin-berdin egiten da. Azkenean erabaki politikoak dira. Orain PSOEkoak dira inkesidoreak eta alderdi politikoak kanpoan uzten dira, kasu honetan, ezker abertzalearen ingururik sortzen den alderdi politiko eta espresio guztiak. Eta EAJ ikusten dugu laguntzailea dela inkesidoreekin, garai hartan ez bezala. Iruditzen zaigu atzerapauso nabarmenak egiten ari direla eta horrek garbi erakusten duela demokraziarik ez dagoela. Hainbat eta hainbat espresio politikori eta mila herriarrei eskubide zibil eta politikoak moztzen zaizkiela eta ez dagoela erabaki juridikorik, baizik dena politikoa da.

## D3Mren zerrendagai batzuk inputatuta daude eta espetxean. Nola ikusten duzu zure burua egoera horretan?

Ez dakigu zer gertatuko den. Lan politikoa egiteagatik eta hauteskunde hauetan parte hartzeagatik kide asko atxilotuak eta espetxeratuak izan dira. Beste hainbat inputatutak daude eta beste hainbat, neubarne, arrisku horretan gaude, kontrolatuak garelako egunero. Hori guztia salagarria da eta horrek erakusten du, hitz gutxitan, Euskal Herrian ez dagoela demokraziarik. Horrek egoera kafkianoan uzten gaitu. Edozeingaraitan atxilotuak izateko arriskuan gaude lan politikoa egiteagatik.

## Nola baloratzen duzue Espainiako justiziari emandako argudioak baliogabetzea erabakitzeo? Europako beste estatu batean justizi-



I. GARCIA

## «Herri honen borondatea ez da ordezkaturia izango legebiltzarrean»

## ziak berdin jokatu zuela uste duzu?

Nik uste dut alde juridikotik oso gutxi duela. Ez dira oinarriko eskubideak errespetatzen. Lehengo astean Bruselako Giza Eskubideen Komisioko kontalariak esan zuen bezala, oinarriko eskubideak ez dira errespetatzen eta horiek errespetatu behar dira. Kasurik ez zaio egin. Madrilo Auzitegi Goreneko epaile batek ere esan du ez dela oinarriko eskubideak errespetatzen eta hau Bruselan atzera botako dutela. Ikuspuntu juridiko batetik oso adituak direnak garbi ikusten dute hemen zer bidegabekeria gertatzen ari den. Gertatzen dena da diktaturazko estatu baten posizio batetik guztia aurretik eraman dela. Baina ikusten da Europatik begiratzen ari direla eta uste osoa daukagu aiek guztiak atzerabotako dituztela.

## Hauteskundeetan D3Mren bozkatzelekin bozkatzea eskatu duzue.

Pentsatzen dugu beharrezkoa dela. Gure bozkek urtearen pisua dauka. Errebelde izango da, desobediencia, diktadura honi, inkesidorei aurre egiteko. Demokraziaren aldeko eta behin betiko bakearen aldeko planteamendua izango da, non Euskal Herria herri bezala errespetatua izango den eta etorkizuna euskaldunok erabakiko dugun. D3Mren bozkek hori guztia ahalbidetuko du. Aldaketa

ekarriko du, ez du beste inongo alderdiek ekarriko, ez PSE-EEK ez PPK. Hortik ez dago aldatetarik, horregatik esaten dugu martxoaren 1ean D3Mren bozkek izugarriko pisua duela. Horregatik herriar guztiak borrokara deitzen ditugu, hau da, bere bozka borrokari horiekin hautesontziak betetzea. Ez da bozka baliogabea, baizik injustiziarri aurre egingo diona eta duintasunaren aldekoa.

## Legebiltzarrean ez da izango ezker abertzale ofizialaren ordezkariak.

Hasteko horrek ekarriko du traspazko legebiltzarra izango dela, prostituitutakoa. Herri honen borondatea errespetatu eta ordezkatzeko ez duen legebiltzarra izango da, eta nire ustez, historian lehenengo aldiz EAeko legebiltzarra hankamotz jarritakoa izango da. Ibarretxek esan behar lukeena da hauteskunde hauetan ez dagoela gutxieneko garrantziak proiektu politikoko guztiak defenditzeko. Izugarriko aberrazioa izango da, baina azken finean beraiek dira Espainiaren inposaketaren konstituzioa onartzen dutenak, men egiten dutenak. Horrek esan nahi duena da iruzur politikoko baten aurrean gaude eta herri honen borondatea ez dela ordezkaturia egongo.

## Azken legegaldien zer balantze egin duzue?

Hori seguraski EHAKk egin beharreko balantzea izan beharko luke.

Baina, lehenengo eta behin esan behar da egoera antidemokratikoa batean egin zela aurre, hainbat eta hainbat zerrenda legez kanpo utzi zirelako. Azken finean herri honen ordezkari guztiak era ezberdinetara parte hartzeko aukera bat izan zela, nahiz oso zirikitu txikitik izan. Nik uste dut ezker abertzaleak egindako lana oso garrantzitsua izan dela, nahiz askotan kontuan ez izan eta izkutatu izan.

## Zein da zuen programa?

Guk ezkerreko politika egin nahi dugu, herriaren interesak defendituko dituen, herri kontsultak bideratuko dituen, ez duena inposaketarik ezarri nahi, ez dugulako AHT inposatzaile nahi, herriaren iritzia jaso nahi dugu. Ezkerreko politikak hori esan nahi du. Langileen eskubideen alde egin behar dugula, aberastasunaren banaketaren alde, oinarriko gizarte zerbitzuak indartu behar ditugula, euskara indartu eta bereziki babestu behar dugula. Hori guztia egin behar da eta ez, gaur egun gertatzen den bezala, AHTren inposaketa bat, superportuaren bezalako inposaketa bat, xahubide izugarria diru publikoarekin. Azken finean sistema neoliberal eta kapitalista bat dago. Ikusten dugu EAJren inguruko politikariak direla enpresetako jabeak eta iruzur politikoa, diru lapurretak daudela. Irungo Ogasunaren kasua hor daukagu, Gug-

enheim, Balentziaga,... eta dimisiorik ez dago. Iruzur eta engainu horiekiditea nahi dugu eta herriari protagonismoa ematea. Beraiek ere badakite Euskal Herrian aldatetaren motorra ezker abertzalea dela eta hori moztu nahi dute era antidemokratiko batean. Horregatik gure bozkaren garrantzia

## Baliogabetzea erabaki politikoa da eta eskubide zibil eta politikoak moztzen zaizkie herritarrei

## Eredu neoliberal eta kapitalista apurtu behar da eta aberastasuna eta lana banatu

hori da, hori guztia ekidin eta beste politika bat herritarren parte-hartzean oinarrituko dena.

## AHT proiektuaren inguruan zer iritzi duzue?

Lehenik eta behin ikusten dugu AHTren informaziorik ez dela banatu, herriarrik informatu egin behar direla. Herrigaldeketak bultzatu egin behar dira eta beste garrantzitsua ere egin behar dugu, beti ere herritarren borondatearen arabera. Gure alternatiba oso garbia da. Lehenengo AHT gelditzea eta gero herri eztabaida irekitzea. Ez orain gertatzen ari dena, EAJ eta PSOEren eskutik izugarriko ingurumen txikitzea, izugarriko hondamendiak herriaren borondatearen gainetik. Iruzur ekonomiko izugarria egin godo: oso jende gutxi izugarriko diru pila jasoko du guztiaren diruarekin. Madrilen PPREkin gertatzen ari den iruzur guztiak hemen ere gertatzen ari dira eta gertatuko dira epe motzean.

## Krisi ekonomikotik ateratzeko zer pauso eman behar dira?

Hasteko eta behin, eredu ekonomiko aldatu behar da. Eredu neoliberal eta kapitalista apurtu behar da eta aberastasuna eta lana banatu behar da. Kalitatezko kontratazioak eta kalitatezko zergak jarri behar dira, gehiago duenak gehiago ordaintzeko. Soldata duinak, kontratazio duinak eta ikusten ari garen enpresen EREak gelditzea eta diru banaketa bidezkoa izatea. Ez orain ikusten ari garen bezala bankatxei izugarriko diru laguntzak ematea, gero herritarren gana iristen ez dena. Guk, alderantziz, herritarrei, behartsuei gizarte laguntzak, gizarte politika garrantzitsuak, garrantzitsuak diru laguntzak plantatzen ditugu.

## Gatazka politikari zer irtenbide ikusten duzue?

Lehenengo da Euskal Herria nazio bezala aitortzea, euskal estatua dela. Bere lurraldetasuna aitortzea eta bere etorkizuna euskaldunok erabakitzea. Hori da gatazka konpontzeko oinarriko planteamendua eta hau da ezker abertzaleak eta D3Mk egiten duen planteamendua.

# Mendizabal eta Villena, garaile

**Tolosa** » Tolosaldeko Eskolarteko Jokoen azken partidak jokatu zituzten herenegun; Infantil eta alebinen mailan aritu ziren.

## ERREDAKZIOA

Pasa den igandean Tolosaldeko Eskolarteko Jokoen azken saioa jokatu zuten Kultur Etxeko areto nagusian.

Lau igandez jarraian joko hauek eskualdeko xakelari gazteenak bildu ditu Tolosan eta berari esker eskolatan ikasitako erakusteko aukera izan dute. Gainera apirilaren

25ean izango den Gipuzkoako Eskolarteko Jokoen sailkatzeko balio izan die.

Xake azkar erara jokatu dituzte partidak, partida eta jokalaririk bakoitzeko 15 minutu erabiliaz. Antolatzaileek esan dutenez, «oso erritmo aproposa suertatu da eskola adineko jokalarientzat eta partida politik ikusi ahal izan dira».

## Irabazleak

Denen artean jokatu duten arren adinkako mailak ezarri ziren. Horrela, infantiletan Jesusen Bihotzako (Villabona) Aitor Villenak irabazi zuen, bigarren Eneko Maiz

## » EMAITZAK

### Infantilak

1. Aitor Villena (Jesusen Bihotza)
2. Eneko Maiz (Jesusen Bihotza)

### Alebinak

1. Unai Mendizabal (San Joan ikastetxea)
2. Danel Intxaurren (Samaniego)
3. Oier Otxoa (Anoetako ikastola)

izan zen, Jesusen Bihotzako baita ere, eta hirugarren Ernioeako Mikel Muguruza asteasuarra. Alebinetan izan zen parte-hartzerik handiena eta azkenean San Juaneko (Alegia) Unai Mendizabalek eraman zuen urrezko domina. Bigarren Samaniegoko (Tolosa) Danel Intxaurren geratu zen eta podiuma Anoetako Ikastolako Oier Otxoak osatu zuen.



Kultur Etxean jokatu zen txapelketako azken jardunaldia, igandean. HITZA

# Partida parekatua izan bada ere ez du garaipenik lortu Bide Bide Ibizak

**Tolosa** » Azken unera arte ez zen erabaki partida; Baskonia izan zuen aurkari eta ez zuten lortu azken bolada txarra gainditzea.

## ERREDAKZIOA

Azken asteetako bolada txarrarekin jarraituz, Bide Bide Ibizak beste porrot batekin itzuli zen Gasteizen jokaturako partidatik.

Partida Baskoniaren kolore gorriarekin hasi zen. Lehen minutuetan taldeak aurkariaren nagusitasun fisikoaren aurka ezin izan zuten ezer egin. Etxeko piboten garaierak eta kiloez puntu ugari pila-

tu zituzten laurden honetan. Orduan urdinen kalitatea atera zen eta entrenatzaileak hutsarte eskatu behar izan zuen, aldea mantentzen jarraitu ahal izateko. Gauzak honela lehen laurdena 16-15 amaitsu zen.

Bigarrenean ere gauzak nahiko parekatuta joan ziren. Atsedendian Lakunek aldagelako bidea hartu behar izan zuen bizkarrean izan zituen arazo batzuen ondorioz.

Hirugarren laurdenean Baskoniarrek partida erabakiko zutela zirudien eta 12 puntu aurretik jarri ziren baina ez zen horrela izan. Orduan Bide Bideko piboteek, Haritz eta Ionek hartutako 12 eta 9 erre-

boteak horren adibide garbiak izan ziren.

Azken laurdenera 3 puntu azpitik iritsi ziren Jimyk zuzendutako mutilak. Azken bi minutuetan 3 puntu atzetik jarraitzen zuten baina orduan bilapurretara jarraian eginez taldearentzat garaipena eskuratu zuten (74-65).

Partida serioa jokatu arren taldeak ezin izan zuen garaipena eskuratu. Hurrengo astean Logroño izango da Tolosako inauterietan.

Bide Bide Ibizarekin ondorengoak lehiatu ziren: Goar (23), Mingedia (19), Lakun (5), Ion (6), Julen (0) - hasierako bostekoa - Haritz (6), Aza (6), Mikel Txiki (0) eta Medilu (0).



# «Izaera antidemokratikoa» salatuz

**ANOETA** » «Hauteskundeetako izaera antidemokratikoa» salatzen aurreratu egin zuten asteburuan pasa den asteburuan hainbat herritarrek. Bertaratutakoentzat, «hauteskundeetan milaka euskal herritarrek sufritzen duten bozka eskubidearen urraketa Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoeraren beste adibide

bat da». Halaber, kanpainan parte hartzeko deia lortu zuten, «aukera ezkeriar, abertzale eta demokratikoen baten alde egiteko». Hala, «kalde guztietako erasoak eta errepresioa gaindituz benetako demokraziaren aldeko aukera» hauteskundeetan egongo dela gaineratu zuten. HITZA

# TXOTX

**Rezola** Tel.: 943 556 637 Astigarraga  
Ipintza baserria - Santio Zaharra

**Oialume Zar** Tel.: 943 552 938 Astigarraga  
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

**Akelenea** Tel.: 943 333 333 Astigarraga  
Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com

**Gurutzeta** Tel.: 943 552 242 Astigarraga  
Oialume bidea 63 (sarrerara Ergobiatik) www.gurutzeta.com

**Lizeaga** Tel.: 943 468 290 Astigarraga  
Gartziategi baserria, Martutene pasealekua, 139

**Elutxeta** Tel.: 943 556 981 Urnieta  
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

**Larre Gain** Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani  
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa

**Otsua-enea** Tel.: 943 556 894 Hernani  
Osiñaga auzoa

**Urdaira** Tel.: 943 180 119 Aginaga-Usubil  
Urdaira baserria

**Otatza** Tel.: 943 801 757 Zerain  
Otatza baserria

**Urbartarte** Tel.: 943 180 119 Ataun  
Ergoiena auzoa

**Ohiarte** Tel.: 943 501 013 Zerain  
Ohiarte baserria

**Isastegi** Tel.: 943 652 964 Tolosa  
Aldaba Txiki auzoa www.isastegisagardotegia.com

**Begiristain** Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta  
Iturrioz baserria

**Zabala** Tel.: 943 690 774 Aduna  
Garagartza baserria www.rzabala.com

**Aburuza** Tel.: 943 692 452 Aduna  
Goiburu auzoa, Olatza etxea

**Sarasola** Tel.: 943 690 283 Asteasu  
Bebailara auzoa

**Zalbide** Tel.: 943 652 176 Abaltzisketa  
Zalbide baserria

**Eguzkitza** Tel.: 660 654 317 Tolosa  
Usabal auzoa, 25

**Erreka** Tel.: 948 510 625 Leitza  
Erreka auzoa

**DIEZ Autobusak**

Autobusak eta autobusaren zerbitzuak  
Bilaka eta autobusaren zerbitzuak  
Herritarren, enpresen, erakunde, erakunde, erakunde...  
Mundatza kalea, 34 / Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 20013 DOWOSTIA  
Posta elektronikoa: autobusez@diez.com



Suhiltzaileak eta ertzainak sutea amatatzeko lanetan, atzo eguerdian, Sevendenea etorkin adingabeen zentroan. I.T.

## Sute batek kalte handiak eragin ditu Sevendenea adingabeen zentroan

**Ezbeharra** » Atzo eguerdian gertatu zen, eta ez zen zauriturik izan; atzo bertan itxi behar zituen ateak etorkinen zentroak.

### INIGO TERRADILLOS

Sevendenea egoitzak, etorkin adingabeen urgentziako zentroak, su hartu zuen atzo. Adingabeak, hezitzaileak eta segurtasun langileak zeuden egoitzaren barruan sutea gertatu zen unean, baina ez zen zauriturik izan. Eraikinarenean goiko pisuak nahiz teilatuak kalte material handiak jasan dituzte.

12:40 zirenean piztu zen sutea eraikinarenean goiko pisuan, zentroaren logelak daudenean. Hain zuzen ere, 2 logelatan sortu zen sua, eta une horretan adingabeak, hezitzaileak eta segurtasun langileak zeuden etxearen barruan. Hauek seguitan atera ziren kanpora, eta ondorioz ez zen zauriturik izan. Suhiltzaileak sutea piztu eta minutu gutxira bertaratu ziren, eta ordu batean ingururako itzaltzea lortu

### Iragarki laburrak

#### LANA

■ **Garbiketak.** Bigi garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromezurik gabe: Irene 695 70 82 71 / 638 94 46 05.

zuten. Goiko solairua eta teilatua izan dira kalteak.

Adingabeen zentrotako segurtasun langileetako batek azaldu zuen bezala, «gu sutea piztu zen unean behoko solairuan ginen, beraz, ez ginen jabetu gertatu zenaz, eraikinetik ateratzeko esan ziguten arte, beraz, ez dakigu nolaz sortu zen sua».

Ertzaintzak azaldukoaren arabera, berriz, ikerketa zabalduko dute orain, ezbeharrak nola gertatu den argitu asmoz, «horretarako etxearen barruan sua piztu zen unean zeuden guztiak deklaratu beharko dute, adingabe, hezitzaile eta segurtasun langileek».

### «Tolosak asko egin du gazte hauen integrazioa bultzatzeko»

Ezbeharra gertatu zen lekura segituan azaldu ziren suhiltzaileak, udaltzaingoa eta ertzainak, eta baita Tolosako Udaleko ordezkariak ere. Jokin Bildarratz Tolosako alkateak penaturik eta haserre dagoela azaldu zuen; «Horrelako gertaerak pena handia ematen dute, izan ere, Tolosak asko egin du gazte hauen integrazio prozesuan laguntzeko», esan zuen. «Hainbat eragilek parte hartzen duten Immigrazio Mahaia dago, eta Udaltetik proposamenak ere egin dizkiogu Aldundiari, esaterako; beraz, saiatu gara eta saiatuko gara integrazioa bultzatzen, baina zentro honek izan dituen gora-beherak oso kaltegarriak izan dira gazte hauek gizartearen barneratzea lortzeko orduan».

Bildarratzen ustetan, zentroak zituena gora-behera horiek sortzeko elementu erabakiarra izan da adingabeen kopurua. «Erreflexioa egin beharra dago puntu honetan, oso kopuru handia baitzegoen; Gainera, ez da posible herri batek hainbeste adingabe hartzea bere gain; esaterako, 10 adingabe badaude, hauen integrazioa herrian

### «Gertaera hauek pena handia ematen dute, Tolosak asko egin baitu integrazioa bultzatzeko»

JOKIN BILDARRATZ  
Tolosako alkatea

errazagoa izango da, baina 50etik gora badaude oso zaila da hori lortzea». Dena den, Tolosako alkatearen arabera, errua ez da Aldundiarena: «desberdintasun handiak daude lurraldearen arabera, izan ere, Nafarroan, esaterako, 10 etorkin adingabe dauden bitartean, Gipuzkoan 300dik gora daude. Hori kontuan hartu beharko litzateke».

### Atzo bertan ziren egoitza uztekoak

Segurako aterpetxean duela urtebete izandako gertaera ere ekarri zuen gogora Bildarratzek: «aurrikusia zegoen horrelako zerbaite gertatuko zela, atzokoa baitzen zentroan igaro behar zuten azken eguna». Izan ere, Sevendenea etorkin adingabeen zentroa ixtear zegoen, eta pasa den astea asteartean bertan zeuden 12 adingabe

Gipuzkoako beste zentro batzuetara (Zarautz eta Donostia) eramanez bazituzten, atzo ziren gainerako 32 adingabeak eramatekoak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak adingabeen harrera zerbitzua berantolatzea erabaki du. Horregatik, Tolosako zentroa ixtea adostu dute, Gipuzkoako beste hainbat egoitza baitituzte urgentziako harrera emateko. Hala, atzo gertatu ziren adingabeak eramanez ostean, itxi behar zituen ateak Sevendenea zentroak.

### «Arrazakeria asko handitu da Tolosan»

Bestalde, Saad Malec Jatorkin elkarteak kideak, gertaera honen ondoren, «egun lehen baino okerrago» gaudela adierazi du. «15 lagunentzako dago lekua zentroan, eta 25 egon direnean bonba bat zen, beraz, pentsa hango egoera nolakoa izatera heldu den 60tik gora egon direnean». Malec-enustetan, egoera ez da aldatuko adingabeak herriz aldatzeagatik, «Tolosan gertatutakoa pasako baita; neurriak hartu behar dira, eta Aldundiak ez du inbertitu nahi; esaterako, arazoak dituzten adingabeekin askotan salatu izan dugu errehabilitazio zentroetara eramanez behar direla tratamenduak jarraitzeko, baina hauetan ez dute behar bezala lan egiten».

Halaber, Jatorkin elkarteak kidearen ustetan «arrazakeria asko handitu da Tolosan, zentroaren ondorioz, eta magrebiarreganako, batez ere».

## L Laburrak

### Haur jaialdiaren mozorro lehiaketako irabazleak

**INAUTERIAK** » Aiz-Orratz elkarteak antolatuta, larunbatean haur jaialdia izan zen Leidor aretoan. Bertan, mozorro lehiaketa egin zuten urtero bezala. Igandean egunkari honetan argitaratutakoak irabazleak ez baino saria banatu zuten izenak ziren. Ondorengoak dira saria irabazi zuten gazteak: 1. izenak: 5 urtera arte, Unax eta Libe Iglesias (zainzuri eramailea); atseginenari, Zubeldia familia (partxis); 5. saria, Aila Corral (elurretako maitagarria); 4. saria, Ibai Zubiria (Tolosako feriak); 3. saria, Mireia Susin (hegoaldeko andrea); 2. saria, Eneko Alonso (birziklaia) eta 1. saria, Odriozola anaiak (berunezko gudariak).

### Inauterietako zezenetako sarrerak eskuragarri

**INAUTERIAK** » Inauterietako zezenetako sarrerak erosteko aukera dago. Leidorreko leihatilan, gaur eta bihar 17:30etik 20:30era izango da aukera, eta zezen-plazan, Zaldunitan, Astelenitan eta Asteartitan, 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara erosiko ahalko da.

## T Telefonoak

### Larrialdia. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarralde.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbolak:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

**GARRAIOAK.**

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

**BESTERIK.**

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474



## Laskorainek aise irabazi dio Ortziri Comodon-i

**Areto futbol** » Bilbora bidaiatu zuten herenegun goizean horitxoek; 3-8ko emaitzarekin irabazi zieten bizkaitarrei.

### ERREDAKZIOA

Saillkapeneko azken hirugarren postuan kokaturik dagoen Ortziri Comodon bilbotarra izan zuten aurkari igandean Laskoraingoek.

Inoiz baino baja zerrenda luzeagoa zen horitxoek lerroetan, Domentxe, Ekhi, Telletxea, Zabala eta Jonikok ezin izan zuten gaitz nontzekoen alboan lehiatu.

Lehen zatian atzean sendo jardun ziren eta kontraerasoan zein estrategian asmatuiko jokaldi ba-

tzuren ostein 0-5eko partzialarekin aldagaratu ziren jokalariek. Neurketa maldan behera ipini zen oraindik 20 minutu luze geratzen baziren ere. Ordura arteko golegileak Barriola(3) Saldias eta Lander izan ziren.

Bigarren erdian tentsio jaitsiera batek etxekoan zenbait gol baimendu arren, soberako errentak 3-8ko azken emaitzarekin amaitu zuen neurketa. Saldiasek beste behin, Murgik eta Gilek sinatu zituzten tolosarren sareratzak.

Aipatzeko da Led jokolariaren lana. Hasierako bostekoan ateratzeaz gain, txukunak baino zerbait gehiago izandako minutu ugari jokatuta baitzituen bere debutean, merezitakoak eta bere kabuz irabazitakoak gainera.

## Lidertza berreskuratu ezinik dabil Tolosa

**Futbola** » Pasaiaaren aurka jokatu zuen larunbatean Berazubini; banako emaitzarekin amaitu zen norgehiagoka.

### ERREDAKZIOA

Asteburuko jardunaldien ostein Aloña Mendiren parean jarri da Tolosa, puntuei dagokionean. Hala ere, saillkapeneko bigarren postuan jarraitzen du.

Pasaia izan zuen aurkari larunbateko norgehiagokan, eta berdin-

ketarekin konformatu behar izan zuen oraingoan ere. Banako emaitzarekin bukatu baitzen partida. Ongi aritu baziren ere tolosarrak, oraindik ez dute lortzen lidertza itzultzea, azken bi partidetan ez baitute garaipenik erdietsi.

22. jardunaldiaren ostein, 41 punturekin dago Aloña Mendiren berdinduta, eta puntu bat gutxiagorekin, atzean du Aretxabaleta. Hurrengo jardunaldian bidaia-tzea tokatuko zaie, eta Vasconia izango dute aurkari. Hau saillkapeneko 14. postuan dago hemezortzi punturekin.

## Laburrak

### Inauterietan, larunbateko azoka tokiz aldatuko dute

**EKONOMIA** » Inauteriak direla eta, datorren larunbatean, otsailak 21, Euskal Herria plazako merkatuko postuak, arkupe barrukoak izan ezik, San Frantzisko ibilbidean jarriko dituzte.

### Alkoholaren eraginpean gidatzeagatik, bi atxilotu

**GIZARTEA** » Hemezortzi pertsona atxilotu zituen asteburuan Ertzaizak EAEn, alkoholaren eraginpean gidatzeagatik. Horietatik bi eskualdean izan ziren. Lehendabizikoa larunbatean, Ikaztegiatan. Bertan, gidariak ondorioz izan ez zuen istripu batean parte hartu zuen. Bigarrena berriz, Tolosan izan zen, herenegun.

### Agirrerren erakusketa ikusteko azken egunak

**KULTURA** » Juan Jose Agirrerren margoak ikusteko azken eguna biharkoa izango da. Aranburu Jaurregian daude jarrita, abendutik. Gaur eta bihar arratsaldez egongo da zabalik, 17:30etik 20:30era.

### Norma Vazquez, genero indarkeriaz ariko da gaur

**GIZARTEA** » Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, Norma Vazquezek hitzaldia eskainiko du gaur iluntzean. 18:30ean izango da saioa, Kultur Etxean. Genero indarkeriaren inguruan mintzatuko da, arlo horretan aditua baita Vazquez. Ekimen hau Udalak jarritako sentsibilizazio kanpainaren baitan antolatu du.



## Danbor soinuaren oihartzuna hasi da

**AISA** » Inauteri giroa pixkanaka gero eta gehiago ari da zabaltzen Tolosako kaleetan. Horren adierazle izan zen, Triangulo plazan igande goizean bizi zen giroa. Bertan bildu ziren ehunka haur, Zaldunita Bezperan

ospatzen den danborradako azken entseguak burutzeko. Larunbatean, 17:00etan aterako dira Santa Maria kaletik eta kalez kale ibiliko dira makilei eragiten. Azkenik, denak Trianguloan bilduko dira. I.LAHIDALGA



**UNAI ZIARRETA  
INDEPENDENTEA**

LEHENDAKARI HAUTAGAIA CANDIDATO A LEHENDAKARI



**EMANBOTOAVOTA**



Jende asko gerturatu zen Otsolar Dantzari Taldekoek igandean eskainitako Ihaute Dantzak ikustera. I. LAHIDALGA

## Eguraldi bikaina lagun zutela amaitu zituzten Inauteriak lizartzarrek

**Lizartza** » Jende asko bildu zen igandean inauterien azken egunean; 'ijito' erretzearekin amaitu dituzte jaiak.

### ERREDAKZIOA

Giro ederra izan zuten lizartzarrek herrian Inauterietako azken egunean. Eguraldi bikaina izan zuten eta asko izan ziren mozorrotuta kalera atera zirenak.

Inauterien azken egunean badi-tuzte bi hitzordu garrantzitsu: iluntzeko *Ijitoaren* erretzea eta bazkaria. Izan ere, azken urteetan bereziki zaintzen saiatu diren ekitaldia da bazkariarena. Herriarren topaleku izatea dute helburu eta lortzen ari direla dirudi, asko izaten dira eta bertaraten direnak. Pilotalekuan egin ohi dute bazkaria eta 1994. urteko lehen Inauteri haietan 500 pertsona ere bildu ziren. Aurretan ere herriar ugari bildu ziren pilotalekuan bazkaltzera. Lehenago, gainera, giro politasortu zuten herrian. Agintari

eta dantzariak, txistularien *Agintari doinuaz* lagundurik, Meza Nagusira joan ziren lehenik eta ondoren, denak bildu eta hamaiketako izan zen plazan.

### Puska biltzen

Hamaiketako egin eta gero mozorrotutako jende guztiarekin, gurdi eta dantzariarekin batera, puska biltzera joan ziren. Otsolar Dantzari Taldearen Ihaute Dantzak ikusteko aukera ere izan zen goizean zehar.

Kalean zehar ibili eta gero aipatu bazkaria ere izan zuten. Jaiak, pasa den larunbatean, txekorraren gibel jatearekin hasi zituzten, eta bazkarian ere txekorra jan zuten lizartzarrek. Txaranga, dultzainero, joku eta zozketen ondotik iritsi zen azkenean festen amaiera; plazan izan zen, *Ijitoaren* erretzearekin.

Inauteriak indartzeko esfortzua egiten ari dira herrian azken urteetan, eta azken hauek ikusita badi-rudi lortzen ari direla. Ea datorren urtean ere lizartzarrek kalera ateratzea animatzen dituzten.



Bazkaria ere egin zuten eta bertan Agintariak ere izan ziren. I. LAHIDALGA

## Laburrak

### Korrika batzordearen bilera bihar, udaletxean

**VILLABONA** » Korrikaren gertutasuna dela eta Villabonan bihar egingo dute Korrika batzordearen bilera. 19:00etan udaletxeko Balio anitzeko gelan (Liburutegi gainean) egingo dute eta interesa duten pertsona guztiei agertzeko deia luzatzen diete.

### Ski alpino edo snow board irteera antolatu dute

**VILLABONA** » Villabonako Gazte Bulegoak ski alpino edo snow board egiteko irteera antolatu du Luz Ardidera martxoaren 7rako. Irteera 13 eta 20 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago eta izen-emateak otsailak 20 baino lehen egin behar dira. Irteeraren salneurria 25 eurokoa da adin txiki koentzat eta nagusiek 35 euro ordaindu beharko dituzte.

### 208 zenbakia da urte guztiko boletoen irabazlea

**IBARRA** » Eguberrietan saldutako urte guztiko boletoen lehen sariko bigarren zenbakia pasa den ostiraleko ONCEkoa da, hau da, 208. Saridunak Ibarako denda batean jaki ezberdinez osaturiko saskia irabazi du.



Urte guztiko boletoen irudia.

### Anoetako Auditorioaz hitz egingo dute osoko bilkuran

**ANOETA** » Anoetako Udalak Ohiko Osoko Bilkura egingo du bihar, 14:30ean. Bertan, Anoetako Auditorioa izango dute hizpide; erabile-ra anitzera kultur ekipamendua eraikitzeko obra kontratuaren lizitazioa, hain zuzen.

## Hilberria



### JUAN JOSE AGIRRE AIZPURUA

JAUNA  
(Jesusa Mauleon Zabalzaren alarguna)

Atzo hil zen, 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Seme-alabak: Jesus M. eta Nekane Mujika, Edorta eta Magi Cadarso, Tito eta Maite Uzkudun, eta Juanxto; bilobak: Maule eta Luar; anai-arrebak: Juan, Tomas, Luis eta Dorita; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela BIHAR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako SANTA MARIA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Euskal-Herria 3-4.

OHARRA: Gorputz bella Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan egongo da, bihar asteazkena goizeko 10:00ak arte.



TOLOSAN  
2009ko  
otsailaren 17an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**E Elkarrizketa**

**ENRIKE RUBIÑOS** ▶ Bateri-jotzailea

# «Vendetta ez da Skalariaken jarraipena baina oinarrian bere zerbait egongo da»

**Ibarra** » 'Vendetta' lana argitaratu dute, 13 kantuz osatutako diskoa eta batez ere ska doinuak jorratu dituzte; lanarekin gustura dago Rubiños.

**NEREA URBIZU**

Urte asko daramatza musika munduan, perkusioa jotzen batez ere. Irakaslea eta musikari profesionala da Enrike Rubiños (Tolosa, 1978). Drindots taldeko bateri-jotzailea izan da urte askotan eta Skalariak taldean 2 urte egin ditu. Orain, Vendetta talde berriarekin gogotsu dabil; atzoz geroztik salgai dago Vendetta.

**Vendetta: besteen artean, festa-rako taldea da. Zein erritmo jorrazten dituzue zuen lehen diskoan?**

Swing, ska gogorra, ukitu latinoak ere badira, reggae-a... Denetik pixka bat. Guztira 13 kantu daude diskoan eta horietatik bi, bertsoiak dira: *Everyday* eta *The munsters*. Festa kutsuarekin eta umorez egindako letrak daude eta ironia pixka bat ere badute.

**Abesti gehienak gazteleraz dauzue. Zergatik?**

Abeslariak ez daki euskaraz: euskaltzalea da guztiz baina ez daki hitz egiten eta latsa ematen dio euskaraz abestea euskaraz ez jakinda, ez da ondo sentitzen. Pello komposatzen hasi da eta seguraski euskaraz egingo ditu letrak. Baina Jabier ez zen eroso sentitzen euskaraz: ahoskera ez du batera ona [barreak].

**Pozik emaitzarekin?**

Bai, oso gustura. Egia esan, espero baino hobeto sonatzen du diskoak. Iruñeako K Estudiotan egin dugu grabazioa, Alberto Porresekin: honek ere lan txukuna egin du. Hamar egun izan ginen han, aben-

duan zehar. Ordu batzuk sartu genituen...

**Eskarmentu handiko musikariak zaudete Vendetta: lau kide Skalariak taldean aritutakoak.**

Jabier Etxeberria, Luisillo Kalandraka, Ruben Anton tronpetista eta ni neu. Musikari berria Pello Reparaz da, tronboi-jotzailea: gaztea eta energikoa da, zentzu guztian gainera.

**Vendetta Skalariak taldearen jarraipena da?**

Ez. Baina ezingo gara inoiz horretaz bereiztu, hamar urte egin baitutuzte batzuk Skalariaken eta hor geldituko da posoa, oinarri bat. Baina hau gauza berria dela argi dago, ez da jarraipena. Lehenago abestiak Skalariak taldeko abeslariak egiten zituen eta orain, Jabierrek egiten ditu. Konponketak ere beste batek egiten ditu eta letrak ere bai. Beraz, desberdina da.

**Ez zarete inorekin identifikatzen beraz?**

Bakoitzak bere gustuak ditu. Heavy birziklatua naiz ni, skazale amorratu bat ere badago, rock-ero bat ere bai, punk-zalea ere badugu... Denetik pixka bat.

**Martxoaren 19an Tolosan, Bonberenean joko duzue. Etxean lehenengoz?**

Bai. Ez dut inoiz Bonberenean jo, eta hau izango da nire lehenengo aldia: ondo egongo da. Gainera Stupenda Jonesekin joko dugu. Etxetik gertu jotzea beti ondo dago. Zornotzan ostiralean joko dugu eta egia esan, Bizkaian jotzeko gogoan daukagu. Bilboko Fnac-en seguruenik ere ariko gara, baina zehaztu behar da.

**Bateria, gitarra, baxua, tronboia, tronpeteta eta ahotsak nork?**

Nik ezik, denek abesten dute zerbait. Zuzenean lau kideek abesten dute baina gehiena Jabier gitarrak abesten du: abesti gehienak ere berak egin ditu, bat ezik: Pellok eta Luisillok egindakoa dena.

**Diskoa atera aurretik ere asko jodu duzue. Zer moduzko harrera izaten ari da?**

Egia esan bai, dexente jo dugu. Jendeak oso ondo harrapatu du. Ska puristei ez hainbeste, esango nuke baina gazte jendeari gustatu zaio. Diskoa goitik behera abestiren bat kenduta oso alaia da. Nafarroan jo dugu gehienbat (Leitza, Tafalla, Iruñea, Sakana...), Iparraldean ere aritu gara eta ostiraleko kontzertua Bizkaiko lehena izan-



N. URBIZU

go da. Galizan ere jo dugu, Festival Furtivon. Gehienbat leku txikietan jo izan dugu, Gaztetxeetan eta tabernatan, baina leku irekietan jotzeko gogoia ere badugu.

**Vendettaren lehen diskoa da. Lehena eta azkena?**

**Aste Santuan Suitzara goaz bira bat egitera; beranduago Florentziara joango gara**

Ez. Askotan hitz egiten dugu eta bigarren diskoa atara nahi dugu denek, hau ez da disko fantasma bat. Asmoa badugu: dena dela, entzuleek ere baldintzatuko dute.

**Vendetta izena, zerbaitetikiko mendekua da?**

Ez da mendekua inoren kontra, hitz italiarria da eta ska musika Italian oso hedatua dago.

**Skalariak taldea utzi zenuten, zergatik?**

Atsedean hartu behar zelako. Hamar urte daramatzen jendea zegoen eta horrek airea behar zuen. Puntu gorenean zeudenean utzi genuen, eta hobe zen haize pixka bat hartzea eta gero ikusiko da zer pasatzen den. Skalariak taldeko abeslaria zena Katalunian beste proiektu batean ari da.

**Datorren ostiralean Zornotzan joko duzue, baina atzerrira ere joango zarete.**

Bai, Aste Santuan Suitzara goaz, apirilaren 8tik 13rabitarte, hain zuzen eta lokaletan joko dugu. Florentziara ere joango gara. Kataluniar joateko asmoa dugu, segituan baina oraindik zehaztu behar dugu.

**Kolaboratzaileak ere izan dituzue, eta ez edonolakoak.**

Bai. Konejok (Impekables), Gorka Armendarizek (Leihotikan), Xabi Fernandezek (Kerobia), Piluk (Tonino Karotonerekin eta Amparanoiarekin abestu izan du), Beltxadak (Iruñeako rapero bat,

Pueblonegro taldekoa) eta Alberto Isabak (Kerobiako baxu-jotzailea) koroak eta ahotsak sartu dituzte hainbat kantuetan. German Anton Ruben tronpeteta-jotzailearen aita da eta bonbardinoia eta tuba jo ditu diskoan. Bukatzeko, Marcos Campos galizarrak gaita jo du.

**Diskoa non lor daiteke?**

Hasiera batean eta berez, Euskal Herriko dendatan izango da eskuragai. Baina dena dela, geure blogean jartzen du non erosi edo lortu daitekeen: [www.vendettanafarroa.blogspot.com](http://www.vendettanafarroa.blogspot.com). Myspacen ere informazioa eskura daiteke (<http://www.myspace.com/vendettanafarroa>).



**» DATUAK**

- **Taldea.** Vendetta.
- **Diskoa.** Vendetta.
- **Disketxea.** GOR, 2009.
- **Estiloa.** Ska-rock, reggae, kutsu latinoak...
- **Prezioa.** 11 euro.
- **Abesti kopurua.** 13, horietatik bi bertsoiak dira: *Everyday* eta *The munsters*.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
**Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kirola

■ **Alegia.** Iganderako Elgea-Degurixen mendi irteera antolatu du Alegiako Mendi Asanbladak.  
■ **Villabona.** Villabona - Uzturre (711m) - Tolosa goizeko irteera antolatu du Aizkardi mendi elkartearen hilaren 22rako (Inauteriak). Izen-ematea, elkartean ostegunetan 20:00etatik 22:00etara (649 717182)

### Deialdiak

■ **Amezketeta.** 20:30ean udaletxean Kultura, gizarte ongizate eta ingurumena batzordea. Gaiak: Udaleko lokalen eskaera, Korrika 2009 eta UEMA, herriko kultur eragileei diru laguntzak, jubilatuen programa, Enirio-Aralarko loteak, San Martingo proiektua...  
■ **Tolosa.** Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, Norma Vazquezek hitzaldia eskainiko du gaur 18:30ean Kultur Etxean, genero indarkeriaren inguruan.

### Inauteriak

■ **Tolosa.** Zaldunita Bezperako danborradarako entseguak Kultur Etxean 20:00etan Musika Eskolan Bandarekin batera.

### Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkarteak Santillana del Mar-era irteera antolatu du gaurko. Izen-ematea, elkartean 12 eurotan. Gosaria Quevedan, promozio komertziala eta bazkaria musika, dantza Rocio erromeriarekin.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Festa eroenen atarikoak

**TOLOSA** ● Berdura plazan sortu ziren herenegun Inauteri doinuak. Bertan sortu eta Alde Zaharreko kale guztietara barreiatu zituzten doinu horiek Txistulari Bandaren eta Musika Bandaren musikariek. Jende asko hurbildu zen hauen Inauterietako kontzertuaz gozatzera eta oso giro ona izan

zen. Txistulariak hasi ziren lehendabizi, eta ondoren Musika Bandakoen txanda etorri zen. Ordu eta erdiz Inauteri doinuak eskaini zituzten. Kabi Alai eta Veleta-Aitz Orratzeko bazkide batzuk bere abestiak abestu zituzten Bandarekin batera, 75. urtemuga ospatzen dutela eta. HITZA

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak

**hitza** info

bertako egunkaria

**euskarazko egunkaria**  
**etxean jasotzeko,**

aukeratu zure eskualdea edo hiria eta egin harpidetza:

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

gainera zozketak, promozioak, deskontuak eta hainbat abantaila izango dituzu.



**Promozio berria**  
**-Ibarra-**

Sustatzailea:

**Epergain**  
Eraikuntzak eta  
Promozioak, S.L.  
Eraikitzen du:  
**Aburuza**  
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com